

PLAZA

Jabetze Eskolaren II. Edizioko lehenengo saioa izan zen Malen Aldalurrek, Azpeitiko Udaleko Parekidetasun teknikariak, eskainitakoa. Ezin aproposagoa, ikastaroa irekitzeko; izan ere, jabetze eskolaren beraren definizioaz, egitekoez eta izaeraz hausnartzera eramán gintuzten hizlariak esandakoek, eta ondoren eskolako partaideek landutakoek. Ez da alferrik, jabetze eskolarena, feminismotik hartutako kontzeptua...

1. Jabetze eskola bat ahalduztze prozesu bat da; eta, hor, garrantzitsua da “prozesu” hitza. Zapalduztako norbanako eta kolektiboek menderakuntza-posizioan mantentzen dituzten botere-egiturak aztertu, zalantzan jarri eta irauli ahal izateko gaitasunak garatzen dira bertan, eta hori ez da ekintza-sorta batekin egiten, garapen bat daukan prozesu baten bidez baino. Horretarako, garrantzitsua da ardatz modura talde bat hartzea. Eta, noski, horrek berdin balio du feminismoarean esparruan, eta baita euskalgintzarenean ere.

2. Hiru dimentsio aipatu zituen Malenek, jabetze eskolaren helburuak betetzeko lanak sailkatzeko: indibiduala, kolektiboa eta politikoa. Lehenengoak, norbanakoaren espazioan menderakuntza-egoera bati buelta emateko estrategiak garatzen dio. Bigarrenak, baieztapen bat du oinarri: niri balio didanak, besteentzat ere balio du, eta egoera bat eraldatu behar bada, kolektiboki eraldatzea beste aukerarik ez dago. Eta hirugarrenak, jabetze feministarako eskoletan, teoria feminista lantzea du xede.

Gasteizko euskaldunentzako jabetze eskolan, airean geratu zen galdera: ez al dugu hirugarren dimentsioa gehiegi (edo soilik) lantzen, beste biak ahaztuta?

3. Jabetze feministarako eskolek espazio ez-mixtoak ditu oinarri. Hau da: zabalkuntza ardatz berberak dituztenak elkartzea litzateke helburua. Horrek onura dakar, taldea hartzen baitu ardatz, eta eta elkar ahalduztzeko aukera ematen baitu. Beste behin ere, parekotasuna argia da euskararen egoerarekin (eta beraz, euskaldunekin).

Era berean, espazio mixtoak ere aipatu zituen Malenek, eta horietan erabili beharreko estrategiak ere bai. Beraz, beste galdera bat airean: euskaldun eta erdaldunak elkartuko lituzketen saioak antolatzeokotan, nola antolatu? Zer egin?

4. Interseksionalitateaz ere aritu zen Malen. Emakumeentzako Jabetze Eskoletan, esaterako, oso ohikoak dira emakume helduentzako taldeak, zaintzaileentzakoak... indarkeria gurutzaketa desberdinak konpartitzen dituztenentzako espazioak sortzeko. Eta, zapalkuntzen gurutzaketa hori agerian uzten duten mekanismoek euskaldunentzako jabetze eskoletan ere baliagarriak izan daitezkeela adierazi zuen. Adibidez: zergatik ez sortu Gasteizen neska gazte euskaldunen talde bat?

5. Mugimendu sozialekin harremana eta lotura ere behin eta berriz azpimarratu zen, saioan zehar. Jabetze Eskolak nola egon behar luketen etengabe mugimendu sozialekin lotuta eta etengabeko komunikazioan, feministekin edo euskalgintzarekin, kasu. Malenen esanetan, mugimendu feministak asko markatzen du jabetze feministarako eskolen eta emakume txokoen agenda, eta euskalgintzan ere horrelaxe izan beharko luke. Boteregunea eta lidergoa bertan egon beharko litzateke.

6. Aurrera begirako erronkei dagokienez, zerrendatxo bat egin zuen Malenek:

- Ahalduntze indibidualetik kolektibora jauzi egiteko zailtasunak aipatu zituen Malenek. Eta, beste galdera bat airera: euskaldunentzako jabetze eskolan ez al ditugu, justu, alderantzizko bidea egiteko zailtasunak? Kolektibotik indibidualera pasatzerako orduan, hain zuzen ere?
- Jabetze eskola baten inpaktua neurtzea oso zaila dela garbi geratu zen saioan zehar. Dena kontabilizatzen den garaiotan, ahalduntzea ez da prozesu lineal bat!
- Pentsatzen duguna lurreratu beharra dago. Eguneroko praktiketara eramanez. Diskurtsoa (burua) denean gure ardatz eksklusiboa, gorputza ahazten zaigu. Eta hor ekin behar da.